

196/1998 DEKRETUA, uztailaren 28koa, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautzeko dena.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak Euskal Eskola Publikoko ikastetxeen autonomia aitortzen du V. idazpuruan. Autonomia horren agerbideetako bat ikastetxeek beren jarduera ekonomiko-finantzarioa kudeatzeko duten ahalmena da, ikastetxeak bere Kudeaketa Proiektua onartu eta burutzean gauzatzen dena. Proiektu hori Urteko Kudeaketa Programaren bidez gauzatzen da urtez urte eta aurrekontua osatzea eta onartzea da programa horren atalik garrantzitsuena. Izan ere, aurrekontua ikastetxeen kudeaketarako funtsezko tresna da, baita baliabideen kudeaketan eraginkortasuna lortzeko helburua betetzen den ala ez neur-tuko duena ere.

Horri dagokionez, Legearen V. idazpuruko IV. atalburuak, kudeaketa autonomiaz diharduenak, honako alderdiak, besteak beste, araudi bidez garatuko direla aurreikusten du:

1.– Euskal Eskola Publikoko ikastetxeen aurrekontuaren egituraren zehaztapena, baita kontu-laritza osotuko kudeaketa-eredua eta diruzaintzakoa ere.

2.– Euskal Eskola Publikoko ikastetxeen aurrekontuko diru-sarreretan baliabide soberakinak nola sartu.

3.– Aurkeztu beharreko kudeaketa-kontuen ereduaren zehaztapena, baita zenbatean behin aurkeztu beharko diren ere.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Jaurilaritzaren Kontseiluak 1998ko uztailaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

HELBURUA ETA EZARPEN-EREMUA

1. atala.– Dekretu honen helburua hau da: euskal eskola publikoko ikastetxeen ekonomia eta finantzazko kudeaketa-eredua osatzen duten prozedurak arautzea, haien kudeaketa-autonomia garatzeko.

2. atala.– Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako herri ikastetxe guztiei ezarriko zaie, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 1. atalburuko lehen eta bigarren idazatietan xedatzen denari jarraituz.

II. ATALBURUA

IKASTETXEAREN AURREKONTUAZ

3. atala.– Ikastetxearen aurrekontua Urteko Kudeaketa Programa oinarri hartuta egingo da urtebete bakoitzerako. Aurrekontuan, batetik, gastu guztiak sartuko dira, bai ohiko funtzionamenduari dagozkionak bai egitekoak diren inbertsioei buruzkoak ere; eta bestetik, gastu horiei aurre egiteko lortzekoak diren diru-sarrerak, Dekretu honetan ezartzen denaren arabera. Diru-sarreraren zenbateko osoa izango da gastu-ahalmenaren gehienezko muga.

Diru-sarrerak beren jatorriaren arabera sailkatuko dira eta gastuak, berriz, motaren arabera, EAEko aurrekontu orokorren sailkapen ekonomikoari jarraituz. Dirusarreraren guztizkoa eta gastuen guztizkoa, nahitaez berdinak izango dira.

Ordezkaritza Organo Gorenak du eskumena ikastetxearen aurrekontua onartzeko eta, beharrezkoa bada, aurrekontuaren aldian aldiko aldaketak onartzeko.

LEHEN SEKZIOA

DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIAZ

4. atala.—Aurrekontuko diru-sarreraren egoera-orrian, ikastetxeak ekitaldian bere jardueraburutzeko jasotzeko dituen baliabide guztiak agertuko dira. Tasa akademikoak edo irakaskuntza-zerbitzuengatikiko prezio publikoak direla-eta ikastetxeak jasotako fondoak ez dira diru-sarreratzat hartuko.

5. atala.—Aurrekontuko diru-sarreraren egoera-orrian honako baliabide hauek agertuko dira:

1.— Ikastetxeak EAEko aurrekontu orokorren pentzutan jasotzen dituen diru-kopuruak.

2.— Ikastetxeak bere jarduerara dela-eta sortutako gastuei aurre egiteko beste herri administrazio batzuetatik jasotzen dituen diru-kopuruak, hala badagokio.

3.— Tasen edo irakaskuntza-zerbitzuengatikiko prezio publikoen kargarik ez duten bestelako zerbitzuak emateagatik eskuratutako diru-kopuruak, baita Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 9. atalak tasak ordaintzetik saulbuesten dituen zerbitzuak emateagatik eskuratakoak ere.

4.— Irakaskuntza alorreko jarduerak burutzeko ikastetxeari emandako dohaintza eta legatuetatik sortutako diru-kopuru eta irabaziak, EAEaren Ondareari buruzko legedian ezarritakoaren kalterik gabe.

5.— Ikastetxearen ohiko jarduerak sortutako produktuak saltzeagatik eskuratutako diru-sarrerak nahiz material edo ekipamendu zaharkitua edo hondatua saltzeagatik eskuratutakoak.

6.— Indarreko legediarekin bat etorritik ikastetxearen ondasunak edo instalazioak erabiltzeagatik etor daitezkeen beste diru-sarrera guztiak.

7.— Aurreko aurrekontu-ekitaldian soberakin izandako baliabideak ere sartuko dira, hau da, ekitaldi horretako gerakinak. Ekitaldiaren gerakina honela kalkulatu da: aurreko ekitaldiko gerakinari aribideko ekitaldian jasotako diru-sarrerak batuko zaizkio; ondoren, aribideko ekitaldian jada ordaindutako gastuak kenduko zaizkio kopuru horri.

8.— Azkenik, finantza-autonomiako banku-kontuetan sortutako interesak ere ikastetxeen diru-sarreraren aurrekontuan sartuko dira.

6. artikulua.— Ikastetxearen aurrekontuko diru-sarreraren egoera-orriaren egitura hauxe izango da:

1.— Aurreko ekitaldiko gerakina.

2.— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailetik jasotako diru-sarrerak, ondoko xedea dutenak: funtzionamendu-gastuak, ekipamendua, obra txikiak, kudeaketa zuzeneko jantokiak, hezkuntza-esperientziak eta beste jarduerak batzuk.

3.— Herri-administrazioetatik jasotako beste diru-sarrera batzuk, hala Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko beste Sail batzuetatik, nola Foru Diputazioetatik, Toki

Erakundeetatik, Euskal Sektore Publikoko beste erakunde batzuetatik, Estatutik, Atzerritik edo funts publikoak euskarri dituzten ekimen publikoko Erakundeetatik.

4.– Ikastetxeek eskuratutako beste diru-sarrera batzuk, ondokoak direla-eta: zerbitzuak ematea, kudeaketa zuzeneko jantokietako kuotak, legatuak, dohaintzak eta beste emari batzuk, ondasunen salmenta, banku-interesak eta beste batzuk.

Diru-sarreraren egoera-orria adierazitako lau multzo horien arabera egituratuko da, eta diru-sarrerak banakatu egin beharko dira multzo bakoitzaren barruan, unean uneko indarreko Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren sailkapen ekonomikoari jarraituz.

7. atala.– Ekitaldi hasierako diru-sarreraren egoera-orrian ondoko epigrafe hauek baizik ez dira beteko:

1.– Aurreko ekitaldiaren gerakina.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailetik etorritako diru-sarrerak, Sailaren jakinarazpen ofiziala euskarri dutelarik.

3.– Herri administrazioetatik etorritako beste diru-sarrera batzuk, ematearen erabaki irmoa egoenez gero.

4. epigrafea, beste diru-sarrera batzuei buruzkoa, ekitaldian zehar beteko da, behin diru-sarrerak bilduta. Salbuetsita geratuko dira kudeaketa zuzeneko jantoki-zerbitzua duten ikastetxeak, zeina 1997ko ekainaren 10eko Aginduak arautzen baitu; kasu horretan, bazkalkideek zerbitzu hori finantzatzeko ordaindu beharreko kuoten zenbateko aurreikusia hasieratik agertuko da diru-sarreraren aurrekontuan, horrek dakarren gastuari aurre egiteko egin beharreko gastu guztiak aurrekontuan sartu ahal izateko.

BIGARREN SEKZIOA

GASTUEN EGOERA-ORRIAZ

8. artikulua.– Ondokoak jasoko dira gastuen egoera-orrian: ekitaldian egiteko aurreikusi diren ohiko funtzionamenduko gastuak eta inbertsioak, baldin eta programa zentralizatueta sartuta ez badaude. Honako hauek ere sartu ahal izango dira: langileen prestakuntza- eta birziklatze- gastuak, eta Lanerako Prestakuntza eta Etengabeko Prestakuntza kontzeptuen peko ordainsariak, Dekretu honen 18.7. artikulua ezarri duenaren arabera.

Ikastetxearen aurrekontuko baliabideak ezin dira erabili legediaren arabera herri-administrazio lokal edo autonomikoak bete beharreko zerbitzu publiko edo betebeharrak estali edo ordaintzeko.

Gastuen egoera-orria egituratzeko, unean uneko indarreko Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren sailkapen ekonomikoari jarraituko zaio.

HIRUGARREN SEKZIOA

AURREKONTUAREN ALDAKETAK

9. atala.– Ordezkaritza Organo Nagusiak, ikastetxearen kudeaketaren azken erantzulea izanik, ikastetxearen aurrekontuaren aldaketak onartu ahal izango ditu, hurrengo bi ataletan ezarritakoaren arabera.

10. atala.– Ekitaldi ekonomikoan zehar aldaketak egin daitezke diru-sarreraren egoera-orrian, ekitaldiaren hasieran aurrekusi gabeko diru-sarrerak bildu direlako edo hasiera batean aurrekontuan jarritakoa baino diru gehiago lortu delako.

Gehigarritzko diru-sarrera horiek ikastetxearen aurrekontuan sartzeko, beroriek ikastetxearen banku-kontuan benetan ordainduta egon beharko dira. 7. ataleko 2 eta 3. puntuetan sailkatutako diru-sarrerei dagokienez, aldiz, nahikoa izango da ikastetxeari ofizialki jakinaraztea ematearen erabaki irmoa.

Salbuespen gisa, kudeaketa zuzeneko jantokiak dituzten ikastetxeetan aurrekontuko diru-sarreraren egoera-orria aldatu ahalko da baldin eta hasieran aurrekontuan sartu ziren mahaikide bakoitzeko kuota gehitzea aurrekusten bada, gastuetan dagokion partidaren ere gehitze hori egitearren, kuota horiek benetan ordaindu arte itxaron beharrik gabe.

11. atala.– Honelakorik gertatzen bada, aurrekontuko gastuen egoera-orria ekitaldian zehar aldatu ahalko da:

1.– Ekitaldiaren hasieran aurrekusi gabeko diru-sarrerak lortzen badira, edo hasiera batean aurrekusiakoa baino diru gehiago lortzen bada, aurreko ataletan ezarritakoarekin bat etorritik.

Kasu honetan, bai diru-sarreraren kopuru osoa bai gastuena gehituko dira.

2.– Administrazio arduratsuaren irizpidea dela-eta, aurrekontuko partida ezberdinetarako hasieran aurrekusiakoa aldatzeagatik gastuak berresleitzen badira; horrek beti ekarriko du partida batean edo batzuetan gastua gehitzea eta beste partida batean edo batzuetan hori adina gutxitzea.

Kasu honetan, gastuen eta sarreraren kopuru osoa berdin-berdin geratzen da.

Bi kasuetan, aurrekontuaren aldaketak gastuak benetan egin baino lehen burutu beharko dira.

12. atala.– Ekitaldi ekonomiko osoan zehar ikastetxeak aurrekontu eguneratu bat eduki beharko du, aurreko ataletan ezarritakoari jarraituz egindakoa. Ikastetxeak aldiro Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera bidaliko du aurrekontua, Dekretu honetako VI. atalean ezartzen den moduan.

III. ATALBURUA

AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK

13. atala.– Inoiz, azkenean hirugarren batek jasoko dituen fondoak jaso ditzakete ikastetxeek; kasu horretan, bitartekaritza lana baino ez dute egingo, eta dagozkien zenbatekoak jasotzaileei transferituko dizkiete besterik gabe.

Fondo horiek ez dira inola ere ikastetxearen aurrekontuan sartuko; beraz, ez dira aurrekontuko egoera-orrietan agertuko. Hala ere, diruzaintzan eta dagokion banku-liburuan kontabilitatezko ondorioak izango dituzte.

Aurrekontuz kanpoko diru-sarrera eta ordainketa horiek aurrekontutik berezitako partidetan azalduko dira.

Aurrekontuz kanpoko egoera-orri horietan honako fondo-mugimendu hauek sartuko dira:

1.– Ikasleentzako beka eta ikasketa-laguntzak, horiei dagozkien zenbatekoak ikastetxeak onuradunei zuzenean ordaintzen dizkienean.

2.– Eskola-garraioko banan-banako diru-laguntzak, horiei dagozkien zenbatekoak ikastetxeak onuradunei zuzenean ordaintzen dizkienean.

3.– Lantokiko Prestakuntza modulurako laguntzak, horiek enpresei, ikasleei edo irakasleei ordaindu behar izanez gero.

4.– Jantoki-zerbitzuez baliatzen diren ikasleentzako jantokirako laguntzak, ikastetxeak zuzenean kudeatzen ez dituen jantokiak badira, 1997ko ekainaren 10eko Aginduaren III. atalburuan ezarritakoaren arabera.

5.– Jasotako beste edozein fondo, ikastetxea fondo horien eskualdatzean bitartekari hutsa bada.

IV. ATALBURUA

AURREKONTUA GAUZATZEAZ ETA KONTABILITATEKO KUDEAKETAZ

LEHEN SEKZIOA

AURREKONTUA GAUZATZEAZ

14. atala.– Euskal eskola publikoko ikastetxeen kudeaketa ekonomikoaren adierazgarri den aurrekontua gauzatzeko kudeaketa-kontuak egin beharko dira; bertan ekitaldian egin eta ordaindutako gastu guztiak, eta benetan bildutako diru-sarrerak agertuko dira.

Honi dagokionez, ikastetxeetako zuzendariak dira ikastetxe bakoitzeko aurrekontua gauzatzeko organoak.

Ikastetxeko zuzendariari dagokio gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea.

15. artikulua.– Ikastetxeko zuzendariak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta bere ikastetxerako, honakoak kontratatu ahalko ditu: konponketa-obra txikiak, artapen-obrak eta mantentze-obrak, obra horiek azkar burutu behar badira eta fakultatibo eskudun batek egindako proiektu teknikorik behar ez bada, hornikuntza-, aholkularitza- eta laguntza-, eta zerbitzu-kontratuak, guztiak ere, hartzen duten diru-zenbatekoarengatik, kontratu txikien kategorian sartzen badira, kontratazioaren alorrean indarrean dagoen legediaren arabera.

16. atala.– Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sai-leko kontratazio-mahaiari dagokio ikastetxe gehienetarako interesgarri izan daitezkeen ondasun eta zerbitzuak homologatzeko lehiaketak izapidetzea, bai eta beste edozein izapide egitea ere, hori era zentralizatuan burutzea komenigarritzat jotzen bada, arrazionaltasun irizpideek hala agintzen dutelako eta ikastetxe gehienei eragiten dielako edo eragin diezaiekeelako.

17. atala.– Aurrekontua gauzatzeko printzipio hauek hartuko dira kontutan:

1.– Aurrekontuko ekitaldiko edozein unetan, gastuen gauzatzeari dagokion zenbatekoa ezingo da handiagoa izan benetan lortutako eta dagozkien banku-kontuetan sartutako diru-sarreraren zenbatekoa baino.

2.– Gastuen eta diru-sarreraren kontabilitateko egozketarako kutxa-irizpidea erabiliko da.

3.– Ikastetxeek ezingo dute langileri-gasturik egin.

4.– Ondasun higikorrek saltzeko dagokion lurralde ordezkariari jakinarazi beharko zaio aurretik.

5.– Ezingo da inola ere finantza-inbertsiorik burutu, ezta banku-kontuetako saldoaren erabilgarritasuna murriz dezaketen akordio edo itunik hitzartu ere, nahiz eta horrek interes altuagoak lortzea ekarri.

6.– Egindako gastuak beti eskura ordainduko dira, eta ez da onartuko ordainketaren gerorapen edo zatikapenik.

7.– Ikastetxeek ordainsariak ordain diezaizkiekete hizlari, profesional, artista eta abarri beren zerbitzu profesionalengatik; horrelakoetan ordainsariei dagokien PFEZ kenduko zaie. Foru Ogasun bakoitzaren arauak ezarritako epeen barruan, PFEZgatiko atxikipenak dagozkien Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde ordezkartzen banku-kontuetan likidatuko dira, eta haiek Ogasun eta Herri Administrazio Sailari igorriko dizkiote fondoak, Foru Ogasunei ordain diezazkien.

8.– Ikastetxeek programatutako jardueren barruan, aldez aurretik baimendutako eta, hala bada-gokio, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak araututako jarduerak eragindako ordainsariak ordain diezaizkiekete ikastetxeek EAeko Administrazioko langileei. Ordainketa horietatik dagokion PFEZ kenduko da, hori likidatzeko aurreko idazatian adierazi den prozedurari jarraituz.

18. atala.– Ikastetxeak bere aurrekontua gauzatzeko egiten dituen eragiketa guztiek, diru-sarrerei zein gastuei dagozkienak izan, ondoriozko agiri-euskarria izango dute, diru-sarreraren legezkotasuna eta gastuen justifikazioa egiaztatzeko.

BIGARREN SEKZIOA

ERREGISTROA ETA KONTABILITATEA

19. atala.– Ikastetxearen gastuen eta diru-sarreraren kontabilitatea administratzailearen ardura izango da edo, hala badagokio, ikastetxeko idazkariarena.

Fondo-mugimenduak (kobrantzak zein ordainketak) dakartzaten eragiketa guztiak atal honetan ageri den zerrendako erregistro-liburuetan azalduko dira.

Kontabilitateko kudeaketaz arduratutako organoek honako erregistro eta artxiboak eraman beharko dituzte:

a) Gastuen eta diru-sarreraren frogagiriaren artxiboa: gastuen frogagiri guztiak (fakturak, ordainagiriak edo beste egiaztagiriko baliodun batzuk), bai eta diru-sarrerarenak ere, ikastetxean bertan artxibatuko dira.

b) Gastuen erregistro osagarria aurrekontuko kapitulu, artikulua eta kontzeptua; bertan datu hauek jasoko dira:

- Kapituluak, artikulua eta aurrekontuko kontzeptua.
- Gastuaren deskribapena.
- Eragiketaren data.
- Zenbatekoa.
- Hirugarrenei buruzko datuak.

c) Banku-liburua: ikastetxeak baimenduta duen banku-kontu bakoitzeko bat egongo da. Bertan fondoan mugimendurik dakarten eragiketa guzti-guztiak erregistratu beharko dira kronologi-ordenan, eta gutxienez datu hauek idatziko dira:

- Idazpen-zenbakia.
- Eragiketaren deskribapena.
- Data eta zenbatekoa.

d) Kutxa-liburua: kutxako eskudiruari dagokionez gerta daitezten fondoan mugimendu guztiak jasoko dira bertan, kronologi-ordenan; banku-liburuaz aipatutako datu berak idatzi beharko dira.

e) Inbentarioa: material suntsikorra ez den hornigaiaren bat erosten bada, ikastetxearen inbentarioan jaso beharko da. Era berean, OOGak uste badu inbentarioan sartutako ondasun higikorren batek ez duela irakaskuntza-jarduerarako balio, dela narriaduragatik, dela aldaketa-gatik, ondasun horri baja emango zaio inbentarioan eta Ordezkaritza Organo Gorenaren aktaren bidez berretsiko da.

Ikastetxearen inbentarioan gutxienez datu hauek idatziko dira:

- Hornigaiaren deskribapena.
- Erosketaren data.
- Zenbatekoa.
- Hornitzailearen datuak.
- Bajaren data.
- Artxibo-zenbakia, espediente gastuen frogagirien artxiboan eta gastuen erregistroan identifikatu ahal izateko.

f) Kudeaketa zuzeneko jantokiak dituzten ikastetxeek jantokiko erregistro osagarri bat eramango dute; bertan zerbitzu horri dagozkion mugimendu guztiak idatziko dira, bai gastuenak bai dirusarrerak.

V. ATALBURUA

DIRUZAINZAREN KUDEAKETAZ

20. atala.– Euskal Eskola Publikoko ikastetxeen diruzaintza osatzen duten finantzazko baliabideen kudeaketa honako xedapenei lotu beharko zaio: Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuari, hala badagokio, dekretu hori gara ditzaten arauak eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak ezar ditzan arauak.

21. atala.– Ikastetxeek banku-kontu bakarra edukiko dute beren aurrekontua kudeatzeko; banku-kontu horretan aurrekontua gauzatzearen ondorioz sortutako diru-sarrerak eta ordainketak erregistratuko dira. Salbuespen gisa, baldin eta ikastetxeak leku ezberdinetan sakabanatutako erakinak baditu eta baliabideen kudeaketa eta antolaketa egokia burutzeko beharrezkoa bada, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak banku-kontu bat baino gehiago edukitzeko baimena eman dezake.

Bestalde, kudeaketa zuzeneko jantokia duten ikastetxeek banku-kontu gehigarritzko bat eduki ahalko dute; kontu horretan jantoki-zerbitzurako diru-sarrerak bakarrik erregistratuko dira, haien jatorria edozein delarik, eta zerbitzu horrek sortarazitako gastuak.

Ikastetxeen banku-kontuei izen hau jarriko zaie: «TGPV-EHDN-Finantza Autonomiako Kontu Berezia (ondoren ikastetxearen izena jarriko da)».

Halaber, kutxa baimendu bat eduki ahalko dute ikastetxeek, kopuru txikiko ohiko ordainketak garaiz egin ahal izateko fondoak eskudirutan edukitzearen. Ogasun eta Herri Administrazio Sailak gehieneko zenbateko baimendu bat ezarriko du kutxa horientzat.

Ikastetxeen kutxa baimenduei izen hau jarriko zaie: «TGPV-EHDN-Finantza Autonomiako Kutxa Berezia (ondoren ikastetxearen izena jarriko da)».

Ikastetxeek, baldin eta irakaskuntza-zerbitzuei dagozkien tasa edo prezio publikoak direla-eta diru-sarrerak biltzen badituzte (berezko gastuak egiteko ahalmenik ematen ez dutenak), sarrera-kontu baimendu bat eduki beharko dute, gainera, eta kontu horren saldoa aldiro-aldiroliki datuko zaio Hezkuntza Administrazioari. Kontu horretan mugimendu hartzekodunak bakarrik egin ahalko dira, non eta aipatu den funtsen likidazioa burutzeko mugimendu zordunak ez diren.

Dirusarreraren kontu baimenduei izen hau jarriko zaie: «TGPV-EHDN-Dirusarrerarako Kontu Delegatua (ondoren ikastetxearen izena jarriko da)».

22. atala.– Ikastetxeen banku-kontuen pentzutan egin beharreko ordainketak transferentzia bidez burutuko dira; salbuespen gisa, izendun taloia erabili ahalko da.

Ezin izango da kontu korrontean dagoen saldoaren muga gainditzen duen ordainketa-manamendurik eman, hau da, ezin izango da saldo negatiborik egon kontuan.

Kutxaren pentzutan egin beharreko ordainketak eskudirutan burutuko dira, kutxaren saldoaren mugaren barruan; saldo horrek ezin du gehieneko zenbateko baimendua gainditu.

VI. ATALBURUA

EMAN BEHARREKO KUDEAKETA-KONTUEN EREDUA ETA ALDIZKAKOTASUNA

23. atala.– Aurrerago ezarriko den aldizkakotasunaz, kudeaketa-kontuak bidaliko dizkiote ikastetxeek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, dagokion lurralde ordezkartzaren bitartez, batetik, kontuak finkatzearen eta, bestetik, aurrekontuko ekitaldiaren itxiera eta likidazioa egiteko kontabilitateko betebeharrak era zentralizatuan burutzearen, urtero Ogasun eta Herri Administrazio Sailak ezartzen dituen araei jarraituz.

Honako agiri hauek osatzen dituzte kudeaketa-kontuak; dekretu honetako eranskinetan zehazten dira agiri horien ereduak.

- I. eranskina: Ekitaldiko Aurrekontua.
- II. eranskina: Aurrekontua Gauzatzearen Egoera-orria eta Gastuen Kontzeptukako Banakaketa.
- III. eranskina: Diruzaintzaren Analisia.
- IV. eranskina: Banku-berdinkatzea.
- V. eranskina: Aurrekontuz Kanpoko Eragiketak.

Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak onartu beharko ditu kontu horiek; ondoren, honako hauek ontzat eman beharko dituzte:

- OOGaren lehendakaria/ikastetxeko zuzendariak.
- administratzailea edo idazkariak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduz eguneratuko da eranskinen osaera, baita Ordenamendu Juridikoaren aldaketaren ondorioz egin beharreko beste edozein egokitzapen ere.

24. artikulua.– Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren hasieran, ikastetxe bakoitzak hasierako aurrekontua bidaliko dio dagokion Lurralde Ordezkaritzari, behar bezala beteta eta Ordezkaritza Organo Gorenak onartuta.

Sei hilabetez behin, eta, nolnahi ere, abenduaren 31rako, kudeaketa-kontuak egingo dituzte ikastetxeek. Ordezkaritza Organo Gorenak onartu ondoren, dagokion Lurralde Ordezkaritzari bidaliko zaizkio, horretarako ezarriko den epearen barruan.

Kudeaketa-kontuak bidaltzea ezinbesteko betekizuna izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dagozkien ordainketa-aginduak eman ditzan.

VII. ATALBURUA

IKASTETXEEK LORTUTAKO DIRU-SARRERAK EAE-KO ADMINISTRAZIOAREN AURREKONTU OROKORRETAN SARTZEA

25. atala.– Ikastetxeen kudeaketa-kontuak EAEko Administrazioaren Aurrekontu Orokorretan sartuko dira ekitaldia ixtean, aurrekontu horien likidazioan ikastetxeek jasotako diru-sarrerak eta ordaindutako gastuak ager daitezzen.

Horretarako, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak zuzenean sartuko ditu aurrekontu horietan ikastetxeen aurrekontuko diru-sarrerak, ikastetxeek egindako gastu guztiak egozteko adinako zenbatekoan, aldi berean dagozkien ordainketa-kredituak sortaraziz.

VIII. ATALBURUA

IKASTETXEEN KUDEAKETAREN KONTROL EKONOMIKO-FINANTZARIOA

26. atala.– Dekretu honek zehaztu den informazioa aldiro-aldiro bidali beharra xedatzen du; hala ere, diru-sarrera eta gastu guztien agiri-euskarriak eskueran edukiko dituzte ikastetxeek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzat, Ekonomi Kontrolerako Bulegoarentzat eta, hala badagokio, Herri Kontuen Euskal Erakundearentzat.

Ondoren, ikastetxeen kudeaketa ekonomikoa kontu-hartzaitzaren kontrolaren pean jarriko da, kontrol ekonomiko-finantzarioaren arloan eta kudeaketa-kontrolaren arloan.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu honen azken xedapenetako bigarrenean ezartzen den indarrean sartzeko data gorabehera, 1998ko ekitaldirako kudeaketa-kontuak gaur egun dauden betebeharren arabera aurkeztuko dira.

INDARGABETZE XEDAPENA

Uztailaren 28ko 323/1994 Dekretua indargabetu egiten da. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako zuzendariak dituzten kontratatzekeo ahalmenak arautzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari eskumena ematen zaie dekretu hau garatzeko beharrezkoak izan daitezen xedapenak har ditzaten.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko uztailaren 28an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.